



**ALLIKA, Iruñe; URIARTE, Bitor**

**Bermeoko Toponimia. Bermeotarren izana izenetan**

Bermeo : Bermeoko Udala, 2007. – 1114 or. : ir. ; map. ; 27 cm. – ISBN: 978-84-606-4233-6.

Gutxika-gutxika ari dira azaleratzen urteotan egosten izan diren azterketa toponimikoak. Iruñe Allika eta Bitor Uriarteren lana aspalditik espero genuen horietakoa da, zortzi urteetako lan neketsuaren fruitu ondo zoritua. Bermeoko Udalak argitara eman duen 21. liburua dugu *Bermeoko Toponimia* izenburua daroan hauxe, Bitor Uriartek berak, orduan ere ondo lagunduta, orain 25 urte estrainatu zuen sailari segida emanik. Liburu horietako gehienak herriaren historiari buruzkoak dira, baina ez dira falta bertako euskara aztergai daukatenak ere. Horrexegatik, faltan ematen da Bitor eta Iruñerena bezalako liburuak tokian-tokiko euskarari idatzita ikustea. Lanak iraun zuen bitartean alkatea izanikoak, Juan Karlos Goienetxeak, liburuari hasiera ematen dion hitzaurrean dioen bezala *“ahantzuraren kontrako botika ederra”* dugu obra erraldoi hau, eta liburuaren edukiaren sozializatzeko ekitaldietan –hori ere ez baita garrantzi gutxiagoko lana– erabilitako *“bermeotarren izana izenetan”* lema, lortutako erronka handi baten egiaztapen eta ziurtagiria. Esan dezagun, bide batez, orain arte gure artean egin denik eta osoena dela Bermeoko azterketa toponimiko hau, hemendik aurrera egingo direnen bide-erakusgarri.

Liburua eta atze-azpian dagoen ikerketa aztertu baino lehenago, diodan zerbait egileei buruz. Bitor geografia eta historia ikasitakoa eta irakatsitakoa dugu, eta toponimiak eskatzen duen disziplinarreko lanaren alde bati lotzeko prestua ez ezik, adoretua ere bai. Iruñe, ordea, filologoa, toponimiak berezkoa duen alde linguistikoa hiltzen trebezia handiz jakin duena. Gidor Bilbao filologo bermeotarrak eta liburuaren sarreraren egileak dioskunez *“egile-bikote egokia biltzea izan da, zalantza barik, arrakastaren giltzarri nagusienetako bat”*. Esan behar dut, atsegin handiz, neuri dagokidala Bitor eta Iruñe, alde behintzat, elkartu izana. Aspalditik daukat bi ikerlari saiatu eta setatsu hauen berri, laguntasun eske joan nintzaionetik lehenengoari Eusko Jaurlaritzarako inkesta toponimiko batean ari nintzela 1988. urte inguruan, eta Jose Luis Ormaetxea irakaslearen eskutik laguntasun eske etorri zitzaidanetik bigarrena, tesi doktora egiteko asmoa zerabilela-eta, dozena bat urte geroago edo. Nire orduko eginbeharra Iruñe hasi berriari aholku batzuk ematea eta Bitorrekin harremanetan jarzea izan zen. Harrezkero, ez zen egokiera handirik suertatu elkarlanean jarraitzeko, inoiz artxiobotan elkar topatu eta elkarri aholkuak, informazioa eta adorea eman bagenizkion ere.

Bermeoko txoko guzti-guztiak miatu dituzte orain arte ezezaguna zitzaigun zehaztasun eta dedikazioaz, den-dena mapetan zehazto jasoaz. Eta Bermeo txikia balitz ere, inoiz Bermeorekin zerikusia izan duten inguruneak ere ez dituzte bazterrean utzi, behinola Bermeo baina gaur Bakio den alde handi bat, esaterako. 166 izan dira elka-

rizketatu dituzten berriemaileak, askotan auzoko bateko baserri ia guztietakoak, San Migel auzoko Ermetxio Goiko, Erdiko eta Etxebarri, gehi beste 16 baserri-takoak, berba baterako.

Bestalde, herriko txokoekin egin duten bezalatsu, egin dute artxiboko bazter guztiekin ere. Ez dute Bermeo ager zitekeen bat bera ere zapaldu gabe utzi, horretarako, oporraldiak baliatuz, Madridera edo Valladolidera joan behar izan badira ere. Artxiboak eta erregistroak 12 izan dira, guztiak ere ondo miatuak, Bitorrek hain ondo ezagutzen duen Bermeoko Udal Artxiboa bereziki, ez baitzen alfer lanetan aritu bertan katalogazio lana egiten, goian aipatu 1982ko liburuan bildua. Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa ere ez dute azaletik begiratu, ia 1.000 dokumentu aztertu baitituzte bertan, gehientsuenak Korrejimenduari eta Busturiako Tenentziari dagozkienak. Jasotako informazioa gutxi irizita edo, Bermeori buruzko bibliografia zabal eta oparoa ale bat berari ere muzin egin gabe ustiatu dute.

Jasotako materiala, ondorioz, kantitatez eta kalitatez eskerga izan da, bai dokumentazio idatzi zaharrena zein modernoena, bai ahozko informazioa ere. Listoia oso altu jarri digute, gaur egun egiten diren bilduma toponimikoetan erabiltzen den azalke-ria agerian utziz. Ikerketa sakon horren emaitza liburu mardul batean bildu da eta aurkezpen hunkigarri batez herriari aurkeztu, herritik jasorikoa herriari bueltatuta, Rogelio Botanzen musikatzan dituen Gabriel Arestiren hitz hauek eurenak eginik: *“herriaren ahotik hartu nuen debalde, eta debalde ematen diot herriaren belarriari”*.

Gatozen, honenbestez, liburuak eskaintzen diguna aztertzeraz. Hitzaurre eta sarrera testuen ondotik, ikerketa osoan barrena erabili duten metodologiaren berri zehatza ematen digute egileek (15-42). Ondoren *Normalizazioarako irizpideak* izeneko atal trinko eta polemikoa datorkigu (43-102), gure uste apalean liburua goitik behera pobretzen duten kanpotik inposaturiko planteamendu okerren lekuko, behean detailez aztertuko dugun bezala. Aurreratu dezagun, halaber, lan fin eta bikaina egin digula Irune Allikak, ikus lekiokoen itzal bakarra –detaileko akats bat edo beste, gorabehera– zurrunezia eta fonetikari lotuegia izatea delarik. *Osagai lexiko eta gramatikalen hiztegiak* osatzen du hizkuntzari emaniko azterketa zati zabala. *Geografia eta geologiak*, baina batez ere *Bermeoko lurraldearen historia* kapitulu interesgarriak testuinguru ulergarri batean kokatzen digu ondoko corpus nagusian zerrendatzen den materiala. Corpora bera auzoka banatuta dago: *Hirigunea* –beste 20 paraje edo inguruetan banatua–, *Arane, Agirre, San Migel, San Andres, Almika, Artika, Demiku, Arranotegi, Mañu* eta *San Pelaio Gibelortzagakoa*. Gainerako ataletan sailkatu dizkigute auzoez gainerako entitate edo inguruak: *Kostaldea, Izaro, gainak, sare hidrografikoa* eta *Bakio aldea*. Liburua ixten du *Toponimoen aurkibide* urri batek, liburuaren gabezia bat konpondu gabe uzten baitu. Eranskin gisa, liburuari itsatsita 11 mapa dotore, koloretan eta toponimoz ondo hornituak, gehi liburuan barrena txertaturiko beste erreproduzio bitxi bi, egindako eginahal itzelaren isla.

Ikerketa proiektua hasi berria zela, *Euskaltzaindiako Onomastika Batzordea* azaldu zitzaizen ikerlariari eta lanaren tutelajeari inposatu. Horiek horrela, Gidor Bilbaok hitzaurrean aipatzen dituen normalizazioak eragindako *makina bat burukominez* gain, bidesari asko eta ez nolanhikoak ordaindu behar izan dituzte egileek, liburuak berak eta Bermeoko Udalak. Toponimiaren normalizazioaren aitzakiaz, ikerketa historiko-filologikoa iluntzen duen planteamendua gailendu baita liburua atontzeko orduan. Asko dira ondorioak, lehen toponimoen aukeraketa. Jakina da leku batek izen desberdinak eduki ditzakeela; toponimistaren pozgarri, baina geografoaren (eta normalizazioaren) burumingarri. Egileak azkenaren alde makurtu dira, eta leku bat bera erreferitzen duten toponimoetariko bakarrari eman diote fitxa buruan agertzeko statusa eta beraz aurkibidean agertzeko aukera, aukeratugabeak zerrendetan galtzen

direlarik. Adibide bakarra jarriko dugu: *Dikobasoko erreka* fitxa buruan eta aurkibidean ikus dezakegun bitartean, *Bekobasoko errekie*, *Atzeko errekie*, *Bekotzabolako atzeko errekie* eta *Kritrueneko errekie* ez dira zerrenda hutsean baino ageri. Guztiek daukate balio toponimiko bera, horietako batek edo bestek interes handiagoa edo txikiagoa izan dezakeen arren, baina hori *a posteriori* baino ezin daiteke jakin. *Kritrueneko errekie*, esaterako, interesagarria da oso fonetikaren aldetik, baina fonetista batek nekez aurkituko du liburua goitik behera arakatzen ez badu. Aukeratu beharrak ezinezona eragiten du filologoarengan, horretarako beharra ez baitu ikusten. Zergatik aukeratu *Nardiz* etxe baten izenerako, *Santimarinekoa* edota *Lolitanekoa* bazter utzita? *Nardiz* aurreko mendeetan etxe horren jabeak izandakoen deitura baino ez da, jasotako testigantzek argiro erakusten duten bezala; *Santimarinekoa*, ostera, gaur egun erabilirikoa. Errotulazio edo holako zeregin praktiko baterako hiruren artetik bat aukeratu beharko balitz –bestela ez baita aukeraketa premiarik–, logikoena *Santamarinekoa* aukeratzea dirudi.

Zorionez, hutsune garrantzitsu honek izan du, liburutik kanpo, nolabaiteko konponketa. Dijitalidadea taldeak atunduriko [www.bermeo.org/toponimia](http://www.bermeo.org/toponimia) web orrian ikus eta erabil daitekeen obra paraleloan, liburu osoari zerbaitto erantsi diote: baserrien argazkiak, gaikako aurkibidea eta bilatzaile bat. Aurkibide orokorrean liburuokan agertzen ez den toponimoren bat edo beste gaineratu dute, baina batez ere bilatzailea da lanabesik eskertuena, liburuko sarrera eta azpisarrera guzti-guztiak ematen dizkiguna.

Beste batzuetan, toponimo batetik eratorritako beste batzuk dira itzalean utzi direnak. Mañuko *Zingira* toponimoaren azpian sarrera berezirik gabe geratu dira *Singirabarrena*, *Singiribaso* eta *Singiriko atza* toponimoak batetik eta *Sinkiri* eta *Singidi* aldaki interesgarriak bestetik; Artikako *Zingira* ezberdin baten azpian, ordea, *Sipusti* bitxi eta berezia, beste askoren adibide. Berdin sakrifikatu dira “*generikoegiak direlako*” toponimoen “*multzo bat nolabaiteko kutsu generikoa edota erreferentziala duena*”. Horrela, liburutik kanpo geratu dira baserrien inguruko eremu erreferentziala osatzen duten *Etxeburu*, *Etxeondo*, *Kortatze*, *Bidazpi*... eta soloak izendatzeko molde ezberdinak, besteak beste. Premiazkoa da partikularitasunak jaso eta aztertzea, baina orokortasunak, duten garrantzia dutelako hain zuzen ere, ez dira interes guxtiagokoak, beste formato batean jaso balitezke ere.

Kontuak kontu, larrienik utzi gaituena forma normalizatuak aukeratzeko irizpide edo irizpideen emaitza nahasiak izan dira, neurri batean behintzat tutelaje lan horren ondorioz erabilarazitako irizpideen oinarriak (Gorrotxategi & Salaberri 2000) nahasmerako bidea ematen duelako. Kaleen kasua adierazgarria da. Batzuetan batera (*Denderiakalea*, *Korreokalea*, *Kukunkalea*...) batzuetan bereiz (*Apiotza kalea*, *Erremedio kalea*, *Beiportale kalea*...) idazten dira, ulertu gabe Bizkai osoko eredu historikoa, Bermeo barne, # *kalea* / *-kalle* dela, hots, *kalea* bereiz idazten dela, eta *kalle* batera idazten dela. Deigarria da, nahiz eta beharbada kasu honetan zuzenago jokatu, bata bestearen ondoan zerrendaturik ageri diren *Santa Barbara kalea* eta *Santabarbaraportale* bikotea, esaterako. Horrela, liburuko testuan, baina behin ere ez goiburuetan edo aurkibidean, *Cucuncalle*, *Sagarcalle*, *Barrencalle*, *Artecalle*, *Morgacalle* eta *Goyencalle* (*Goyencalle* formarekin batera, azken kasu honetan) ikus ditzakegu. *Cucuncalle* aipatuta, esan dezagun bidenabar, ia beti eta salbuespenik gabe 1728etik 1928ra bitartean *Cuin Cuin* forma dela testatzen dena, horregatik nekez uler daiteke *Kukunkalea* formaren alde egindako aukeraren zergatia. Beste batzuetan, egileek esplizitatu egiten dute erabilitako motibazioa, gremioen izenak berreskuratu nahia esaterako. Hala ere, ez dirudi pisuzko arazoia denik azken hori *Peskaderiakalea* (erdarazko *calle de la Pescadería* zaharraren moldaketa) hobesteko, ahoz erabiltzen den *Bidebarrieta* formaren kaltetan. *Aroztegi kalearen* kasuan, bestaldetik, ez da ondoegi ulertzen zergatik ez den *Aroztegi kantala* izen berezia hobetsi, hori delarik ahozko forma, XVIII. mendearen

erdialdetik dokumentatua. Kaleen izendapen sistemaren interprezioaren akats bera datza bideen kasuan ere. *Almikabidea*, *Bilbobidea*, *Bakiobidea* eta holakoak ez dira oso idazkera zuzenak, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordearen irizpideetan horren alde egiten bada ere. Izan ere, *bidea* elementua itsatsita erakusten duten toponimo askok nahasi gaituzte, baina kasu horiek ez diete bideei erreferentzia egiten, bide horien ondoko lurrei baizik. Zentzuaren traslazioa emanda, automatikoa da *bide* elementuaren aglutinazioa, artikulua galera barne, Almika auzoko *Andabide* soloaren kasuan, esaterako. Hori ematen ez den bitartean, bideak –mendiak, errekek, kaleak eta bestelako entitateak bezalaxe– autonomia osoa gordetzen duten aposizio elementu hutsak dira, ez baitira, inolaz ere, ezeren salbuespen.

Goitik inposaturiko tutelajearen beste bidesari gogaikarri bat entitate geografikoak markatzearena izan da. Toponimoak ez dira etiketa kartografikoak, ez dira erro-tulu biunibokoak; giza paisaiaren elementu sinboliko konplexuak dira eta, horretara, nekez holako sailkapen estu batera makurtzen direnak. Egileek garbi ikusi dute hori ezinbestean. Adibide moduan jarri diguten *Galdiz* toponimoak *parajea*, *erreka*, *zубia*, *iturriak*, *kantara*, *mintegia* eta *gotorlekua* erreferitzeko balio du, eta neurri zabal edo estuagoan toponimo guztiek ere berdintsu. Etiketa bakar bat jarri beharrak buruko min galantak sortzen ditu. Lan hori, beharrezko edo komenigarri baderitzo, kartografoak egin beharko du, mapa batean agertzeko aukerazten dituen toponimoekin, ez ikertzaileak milaka eta milaka izenekin. Lan artifiziala, nekagarria eta askorako balio ez duena da hori, oraingoan Iruñe eta Bitorri leporatu zaiena.

Amaitzeko, liburuaren itxura grafikoaz hitz pare bat esan beharrean nago. Liburua 1.100 orritik gora doa, mapak kontuan hartu gabe. Egile lantsu biek oparitu diguten informazio eskerga liburuki bakar batean biltzeak ere izan ditu ondorioak. Testuko letraren tamaina “*minimalismora*” eraitsi dute, eta liburuko 1.500tik gorako oin-ohar-rrak eta aurkibideak, besteak beste, minus bat. Ahozko datuak, aitzitik, nabarmendu nahi izan dituztelako edo, letra handi eta lodiz, kontraste zatarrean. Konponbidea ez zen erraza, obra liburuki bi edo hirutan ateratzeak are gehiago garestituko baitzukeen txikia izan ez den aurrekontua. Izan ere, Bermeoko Udalak hartu du bere gain –azken orduko BBK eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz– ikerketaren zama, liburu mardularen argitaratzea eta obra osoa interneten *online* jartzea.

Uzta oparoa bilduko badugu, *adde parum parvo, magnus acervus erit*, bermeotar nekaezin hauek, Iruñek eta Bitorrek, dagoeneko egina dute euren, besteoi bidea ondo erakutsita.

Ander Ros Cubas